

Ura kapenene (egunon) Abya Yala

(Pichiyacu, Quito, Pucahuaico eta Ecuador gogoratuz)

Mikelazulo Kultur Elkarte




Hau da Abya Yalara egin dugun bidaiaren pasadizo laburra. Abya Yala, mundu berriaren izena da, izen lapurtua eta Amerika izenez bataiatua, Americo Vespucio indio-konkistatzaileen omenez.

Urtarrilaren 21ean, gauean, Donostiako kaleak danbor-hotsez beterik zeudela, autobusa hartu eta Madrilera. Aireportua, hegazkina... eta 24 ordu geroago Quitok onartu gintuen arratsalde liluragarri batean, hodei koloretsuz eta iluntasun erakargarri, Pichincharen goialdera doazen etxe-ipurtagi kontaezinen ikusgarriekin. Lurrartu. Han zegoen Enperatriz. Nidiaren pozak agurtu gintuen. Atsedena.

1. Quiton barrena

Quitoko katedrala ikustera joan ginen. Gotikoa, ederra, espazio hutsa, harriak gora, miragarria. Baina gabezia mingotsa, mingarria. Ez da Abya Yalako jatorrizko herrien oroigarri bat bera ere ez. Katedral horrentzako ez dira.

Guayasamien "gizakiaren etxea" bisitatu genuen. Artista horren pinturak lurreko bazter-tuen artean bidaiatzen du, xamurtasunean barrena, jatorrizko kulturetan, afroamerikarren aurpegietan, modernitatearen erronketan. Idatzita dago: "Por los niños que cogió la muerte jugando, por los hombres que desfallecieron trabajando, por los



pobres que fracasaron amando, pintaré con grito de metralla, con potencia de rayo, con furia de batalla”.

Quitoko Jardin Botanikoa ikusi genuen: naturaren festa, bizia, gorri eta koloretsua, berde eta urdin gozoa, sentsazio eta usain miraria, begientzako gozamina.

Hasia zen geure Abya Yalaren aurkikuntza osatzen: katedralean zapalkuntza madarikatuz; Guayasaminekin injustiziaren aurka oihuka; botanikoan bizitzeko alaitasuna ospatuz.

2. Pichiyacu-ra

Hurrengo egunean Pichiyacura joan ginen, Txatxien naziora, Cayapas errekararen bazterrean, Esmeraldas probintzian. Sei urte lehenago Pitxiyukun egonak ginen, Mikelazuloko 13 lagun-
nen espedizioan. Joan ginen agurtzera, haurrekin jolastera eta antzerki bat eskaintzera. Egin ziguten harrera, tratua, oparien festarekin agurra... ondo baino hobeto sentiarazi gintuzten. Baina urte horietan harremanak ez ziren errazak haiekin. Eta gure bidaiaren lehen-lehenik haiengana joatea erabaki genuen, ikusteko ia nolabait lagunak laguntzeko modurik bagenuen, nahiz eta krisia hemen ere

gogor jo, ia proiekturen bat edo beste haiei komeni eta guk laguntzeko modukoa ikusten genuen.

Joan ginen eta harrituta gelditu ginen. Indioen komunitate bat antolatzeko eta egitasmoak aurrera eramateko gogoz, proiektu zehatzak (uraren kanalizazioa, osasuna, hezkuntza, memoria historikoaren berreskurapena...) eta eztabaida sakonak eta unibertsalak (lurrazpiko prospekzioak bai edo ez, herriaren nortasunaren defentsa, “opari pozoitsuen” usaimena... Eztabaida berdina Yasunikoa, Colombiako Embera eta Caucako herriena, Shuar nazioarena, Sarayakuko kitxuena... “Batuetan urrezko kopetan geure heriotza edaten dugu”. Eta hori jadanik esperientzia da Ecuadorreko Amazoniako hainbat lurraldetan, Texaco eta Repsol eta abarrekin... Herriko batzar batean parte hartzen utzi ziguten. Eztabaida biziak. Emakumeen partizipazioa. Atentzio maitekorra eta elkarri eskuak emanda joan ginen¹.

3. Pachamamako Nazio Indigenak

Sumak Kawsay lemapean Quiton, Indioen Obispo izandako Proañoaren jaiotzaren ehun urteurrena ospatzeko egin zen Amerika osoko “Oinarritzko kristau komunitateen” Batzarra, eta bertan parte-hartzera gonbidatuak izan ginen. Batzarra antolatua



zegoen hiru esperientzia eta gogoeta eremu handitan: Pachamama, Herriak, Askatasuna eta helburu baterantz: Sumak Kawsay. Esapidea, ketxuarra da, herrikoia eta "Osotasunez bizi" esan nahi du eta Ecuador eta Boliviako Konstituzioetan, hitz horiexekin, idatzita dago, antolakuntza politikoaren azken helburu gisa jarria.

Lagunak egin genituen New Yorketik Argentinaraino, tartean: Nicaragua, Salvador, Cuba, Panamako Kunak, Venezuela, bolibarianoak, kolombiarrak, ecuatorianoak, Bolibiako borrokalaria, eta brasildarrak ere bazeuden... Ahaleginak iturrietara joateko. Esperientzia historikoaren eta gaurko egoeraren iturrietara. Esperientzia kontakizun ugari (sufirimenduak eta lurraren bizipenak, errepresioak eta lorpen iraultzaileak...): martxak, eskolatxo izugarri ederrak, deskolonizazio ikastaroak, gogoetak, koordinaketak, esperimentu apalak, mobilizazio handiak, auto-baieztapenak, exigentziak, salaketak, itxaropenak, Haitirekin sufirimendua, bonbardatu zuten Enbere herriko buruzagiarekin elkartasuna, hitzaldi apasionagarriak eta umorez josiak... Zerbaitetan bilduz eta laburbilduz, azpimarratuko nituzke: Evo Moralesen hamar mandamenduak gizadia, bzitza eta mndua salbatzeko, ekintza eta asmo gida interesgarria gizadi

osoarentzat. Lau euskarri: gizaki aske eta sortzailea, komunitate-nazio bilgune eta irekia, gizadia bere loturak eta armonia eraikitzen, lur planeta geure begirunearen premian. Eta lurra, herria eta jendea menpean hartu nahi duen neoliberalismoaren aurkako borroka eta koordinazioa.

Sentitzen nuen hango jatorrizko herrien ondoan euskaldunok badugula lotura-moduko nahiko naturalak. Gure historia luzea da, haiena bezalakoa; gure hizkuntza erregez, enperadorez, faraoiez eta handikiez osatutako inperioak baino lehenago osatu zen. Eta gero biziraun dugu dominazioaren garai luzeak igaro ondoren. Geure herentzia estimatuz gero, baditugu eskaintzeko munduko eta Europako memoria historikoaren sakoneko elementuak, eta, baita biziraupenaren esperientziari buruzko gogoetak ere, hain zuzen, memoria eta biziraupena, gizadiak behar duena.

Eta lotura handiak sumatu nituen Abya Yalako herri indioen eta herri afroamerikarrekin, lur-gabetuak, esklabo bihurtutakoak eta orain biziberritzen ari direnak. Eta loturak Afrikako eta Asiako herriei. Eta baita Europako nekazarien eta burdina-langileen milaka urteko esperientzia ere. Lurra ospatu eta lurra desesperatuki defenditu. Lurren inguruko borroka latzak, gosearen aurkako



erreboltak, lo egitearen aldeko borrokak, erregekonde-duque-elizginonen lurak gosetetik defenditu beharra. Azken finean, lurra eta gizakia dira aberastasunaren iturriak.

Badago lotura estu bat lurra eta hizkuntzaren artean. Ez dago giza hizkuntzaren, hitza ereiteko lurrik gabea. Milaka hizkuntzetan jasotzen dira giza historiaren milaka giza esperientziak. Lurraren alde borrokatzea hitzaren alde borrokatzea da. Norbere hizkuntza propioan hitz propioa sortzea. Baita hizkuntza dominanteetako hiztunek ere behar dute bere hitz propioa eraiki, beren diskurtso propioa. Usurpatzaileak, lurra aspalditik eskutatik kendu zieten bezala, saiatzeko dira hitz propioa ere lapurtzen eta bihurtu nahi gaituzte "nagusaren ahotza". Hitz propioa behar dugu bizi garen lurra bizitzaren poztasunerako lurra izan dadin, eta ez estresaren lurra, berdintasunezko giza harremanetarako lurra eta ez eskizofrenia, umiliazio eta bazterketaren lurra.

4. Pucahuaico

2010eko urtarrilaren 30ean, Quitotik Pucuhacora joan ginen, Otavalo zeharkatuz eta Inbabura mendi erraldioaren barrenetan sartu ginen. Goian, goian... zelaitxo batean, lur eremu irekian, gune lasaia, isila, Taita Imbaburak babestua eta Ibarra bailarara irekia. Tupatan zen. Leku egokia atsedenerako, gogoetetan galtzeko, amestu eta egitasmoak zorrozteko, isiltasunean murgiltzeko. Han egin genuen zeremonia kitxua-kristaua, lau norabideetara irekiak Imaburaren begirada pean. Han oparitu zioten Mikelazulori alpakazko manta bat. Han ikusi genuen nola sartzen zituzten janari-opariak Lurraren sabelean. Han jan genuen sumak kawsayren harmonia sotila.

Urtarrilaren 31n, Proañoren urtebetetzea zen (Proaño indioen obispoa izandakoa zen, Riobambako elizaren lurak beren betiko jabeei, indioei, itzuli zien eta iraindua izan zen, kartzelatu, eta gainera miretsia eta maitatua. Bere herrian elkartu zen jendetza, hizkuntz desberdinetan agurak, musika, marimba, banda, oroimenak, baga-biga-higa... Eta Pucuhacora abiatu ginen. Francois Houtard, Foro Sozial Mundialetako nekaezina, eukaristian. Inguruko komunitate kitxuarrak etxeko janari eta gozoak eskaintzen (txerri errea, oilasko-hankak, urtarrikak 31ko kaldoa, kuiak, zuku desberdinak...) Dantza festibala, dantza kitxuak bost mutil gazte bizkor eta energiaz beteak dantzatuak, akordeoiarekin Yuracruzeko lagunek bere dantza aspaldikoa, bildua, lurraren minatik sortua, koroak, bestelako dantzak, eta artisautza modura prestatu-riko su artifiziai zoragarriak.

5. Ecuadorretik barrena

Ibarra: Udalan: "Ibarra a sus fundadores: 1606-1906". Nor izan zen Ibarra konkistatzailea? Eta zein ekintza ospetsu egin zituen? Katedrallean: "Iglesia de adobe y paja en 1606. Gran construcción de cal y piedra el año 1672. Destruída por terremoto en 1868. Reconstruida en 1872, siendo obispo Iturralde, con el apoyo y colaboración de Gabriel García Moreno". Obispoa euskalduna zen eta laguntzailea, militar krudela ikaragarria, Daquilema, indioen oldartze baten buruzagi izandakoa, erail zuena. Bi kanposantu: katedralaren barruan, jauntxo eta obispoen hilobiak: 500/1000 hilobi bakoitzeko; pobreen kanposantuan lurperatu zuten han ginen egun berean Yuracruz komunitate kitxuaren lagun bat.

Yauarchocha: "Odolaren lakua" askatasunaren aldeko behialako guden oroitzapena gordetzen duena. Imbabura zaindari, Cotocaxi begira lainopean, lakuaren ertzetan totorak, zelaia, aromoak, aguaribia, molleak... Hegaka lertxun zuriak eta txantxangorri bikainak erakustaldia eskaintzen digu.

Baños: Ur termalak ur-jauziaren azpian, lainoa eta euria, beroa. Patate, hiri berezia: lurrikararen jaunaren herria eta aldi berean fruitu eta ardoaren hiria: horrorea eta bizitzaren amodio neurrigabea. **Puyo:** Nanky Tranece, shuar naziokoa ezagutu genuen. Musikaz Pachamamarekiko amodioa hedatu nahi du. Benetako shuar izan nahi du. Belar medizinal asko ezagutzen ditu, askoz gehiago du ikasteko. Ez du elektrizitaterik eta errepiderik nahi. Shuar hizkuntzan: "Turasha Yatsuru" (zer moduz anaia?), Peenguru (Ongi!). Bazekien euskaraz zerbait (eskerrik asko). Nobia euskalduna izana zuen. **Makas:** Oihanaz inguraturik hiria egiten ari da. Goizaldean behe-lainoak inbaditzen du hiria. Saltzaileak uraren bizitza eskeintzen. Hiriko enparantzaren unibertsitariak, eta postu batean gelditzen naiz Yasuni parke naturalari buruzko informazioa jasotzeko.

www.yasuni-itt.ec

Cuenca-Tomebamba: Makasetik Cuencara bidaia liluragarria Amazonian barrena. Cuenca, irakurtzen dut Turiko begiratokian: "Ciudad fundada por los españoles, edificada sobre la ciudad de Tomebamba, capital de los indios cañaris". Zergatik ez diote Tomebamba-Cuenca deituko? Turi auzoan auzolanean daude loreak landatzeko. Kapusai morez marianoak prozesioan, handik gertu danbor militarrek, eta pixka bat urrutirago auzo bateko festetako su artifiziaiak. Eta kale luzearen muturrean aztarna triste bat: Pumatungo. Aiton bat etxetik atera da, galdetu diot eta esan dit: "Hemen jaio zen indioen buruzagia, Kappak,

Huascar eta Atahualparen aita". Santo Domingo Plazan "Sabiduría Andina" balleta ikusteko parada izan dugu. Udaberriko dantza kitxuarrak, txamana-patxamama gaztez inguratua, bidea erakusten eta bizitzaren poza, energia eta amodioan txiribuelta eta jauzika parte hartuz. Raimipampan afaldu genuen eta ez ginen damutu. **Cajasko parke naturalera** joan ginen. Miragarria. Paramotan galdu lakuen artean. Hodei eta eguzkia, haizea eta euria. Txoriak kanta, eguzkia atera eta putzu txiki baten hondoa berdez eta argiz distira. Edertasunez ase, trumoi eta ekaitza errepide ondoan, autobusa badator. **Kilotoa:** Latakunga hiri bat da goizeko zazpitan bat-batean esnatzen dena eta arratsadeko zazpitan lotaratzen da. Kilotoara joan ginen. Bidai aluzinagarria. Lur landuak sinestezi-neko puntetan. Kilotoa, krater-lakua itsaso berde urdin argitsuaren amets amaigabekoa. Pake hedatua. Leku isila. Festako begiak. Azal gozoa.

Quiton Conaieko hainbat buruzagirekin egon ginen. *Tendencia* aldizkariak antolaturiko Correaren Gobernuaren balantzeari buruzko eztabaida batean egon ginen. Accion Ecologica del Ecuadorren sinposium batean izan ginen "Ecuador post-petrolero" zen gaia. Sentitu genuen, han, mundu berri baten eraikuntzan ari direla, politika egiten dutela. Hau da, ez dela soilik egindako mundu itxi, ukiezina, miserablearen kudeaketa, mundua *sumak kawsayagoa* izan dadin posible berriak irekitzen ari direla. **Mindo** parkean, orkideak eta tximeletak. Laura eta bere lagunak eskola indigena zoragarria eraikitzen. Agur-afaria. Goiz alban taxian aireportura.

Joseba Barriola, Filo Juanikorena,
J.R. Gurrutxaga
(Mikelazulo kideak).

<http://www.mikelazulo.com/>

